

OHARRA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOa (EIT)

Zer da?

Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa (EIT) prebentziozko legezko mantentzea da. Horren bidez, eraikinak aldizkako ikuskapen bat jasotzen dute higiezinetan edota inguruetan diren pertsonentzako arriskuak eta kalte fisikoak ekiditeko. Goi mailako teknikari batek eginiko txostena eta irizpena da.

Gehienetan begi-ikuskapena erraza eta azkarra da, eraikinaren barne zein kanpokaldekoa, eta bereziki, hurrengo zerrendako guneetan zentratzen da:

- Estrukturan eta zimenduan
- Barne- eta kanpo-fatxadak eta mehelinak, batez ere, biderako arriskutsua izan daitezkeenak
- Estalkian eta teilatu lauan
- Ur sare komunetan (saneamenduan eta horniduran)
- Irisgarritasun elementuak

Epeak?

Eraikaren araberakoak dira.

<https://www.euskoregite.com>

web-orrian

kontsultatu.

Arraia-Maeztuko Udalak herri guztietako zerrendak ditu, zeinentzat EIT egiteko epea 2018ko ekainaren 27an amaituko den.

Nork egin behar du?

EIT teknikari eskudun batek edo ikuskaritza kontrolatzeko erregistratutako entitateek, betiere, esandako teknikariak lanean badituzte. (38/1999 Legea, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa).

Informazio gehiago:

Arraia-Maeztuko udaletxean, AZTEAZKENETAN, 11:30etik aurrera

Telefonoa: 945410033

Herritar oro jakinaren gainean egon dadin ematen da argitara



Maeztu, 2018ko ekainaren 6a

Alkatea